

Aikor!

txorierriko aldizkaria

Urtebarri barri
dekonak ez dekonari
nik ez dekot eta niri
ezpabere txarri belarri

Argitaratzailea: TOTOAN,
Txorierriko Euskara Elkarleen
Federazioa
(Lagatzu, Zorritzeta, Arrekikili)
Tf.: 94 452 34 47

e-posta: aikortxori@yahoo.es

Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Fernando
Larrondo, Jose Angel Mentxaka,
Alberto Legarreta, Mari Tere
Onaindia, Amagoia Guezuraga,
Belen Gana, Aritz eta Nagel.

Kolaboratzaileak: Iñaki Bilbao,
Juanxu Bilbao, Lurdes Lasuen, Asier
Oruetxebarria, Juan Luis Goikoetxea,
Fernando Olabarrieta, Oihana
Astobieta, Maripi Agirre, Atotz
Goikoetxea, Iñaki Berazategi, Javi
Agirre, Jon Ander Rola, Bestorrene,
Leire Palacios, Peru Arregi, Jasone
Astola, Behar Bidasoa GKE.

Zuzentzaileak: Alberto Mtz. de la
Cuadra, Jagoba Zallo

Publizitatea: Arantza Atxutegi

Banaketa: Arantza Atxutegi, Gaizka
Eguskiza

Maketatzailea: Gaizka Eguskiza

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 5.000

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN
1578-9322

Aikor!-ek ez dau bere gain
hartzeko aldirikaren adierazi-
tako esaneri edota eritxiari
erantzukizunik.




diruz lagundutako aldirikaria




28 Derioko dendak



16 Badator, badator...



24 Gotzon Barandiaran



28 Xabier Aburruzaga



14 Tomás San Román



11 Asier Serrano

AURKIBIDEA

4Eritxia **5**Gutunak **6**Laburrak eta albisteak **10**Topagunea
11Gurean izan da... Asier Serrano **12**Gazteen txokoa **14**Tomás San
Román misiolaria **16**Gabonak **22**Olentzerorentzako gutuna
24Gotzon Barandiaran **26**Amerikara joan nintzen **28**Xabier
Aburruzaga **31**Derioko Zerbitzu eta Merkataritza Elkartea
33Teknologia **34**Txorierrri ezagutu **35**Txorierritarrak munduan
36Sukaldaritza **33**Denbora pasa

AIKOR! aldirikariaren laguntzailea izan gura badozu, hemen dozu erea:

Izen-abizenak _____

Helbidea _____

Telefonia _____ e-posta _____

Bankuko 20 zenbakiak _____

Egin zure aukera: 20 euro _____ beste kopuru bat _____

Orri hau helbide honetara bialdu: Aresti, 2 48170 Zamudio
zure laguntzagaz aldirikaria hobetuko dogu!

Janean

Big Size Me filmeko zuzendariari itaundu zeunskio hanburgesa eta patata frijitu globalizatuak osasunean zein neurritan eragiten daben. Hilebetea janari lasterra zerbitzatzen dauan jatetxe-kate famatu baten gosaldur, bazkaldur eta afaltzea erabaki eban berak, bere burua esperimentazio-laborategi arriskutsu bihurtuz. Holan bada, gorputzeko defentsak hilez-hilez eta kolesterol-tasa igonez-igonez hasi jakozan, abiadura bildurgarrian, Euskal Herriko amamen urte osoko indabetako koipeek egingo ez leukien moduan.



Atotz Goikoetxea
(*Euskal filologoa*)

Filmaren grabaketa esperimentuagaz batera hasi eban, eta, bere asmoa gantz-jatea hilabetea luzatzea izan zan arren, hirugarren astearen atarian medikuen erreguek geldiarazi eben: jarraitzen baeban, egun gitxiren buruan hiltzeko arriskua eukan. Ustezko kalitatearen gerizpe baltza.

Beduinoek, ezkontzetako ospakizunetan gamelu betea jateko ohitura daukie. Holan prestatzen ei dabe: ipini arrautzak egosten, eta, prest dagozanean, arrain barruan sartu. Arraina frijitu, eta gero oilasko egosiaren barruan sartu. Oilaskoa aurretiaz erretako artxo baten barruan sartu, eta dan-dana gamelu barruan sartu.

Errezeta geureganatuz, baztertu dagiguzan arrautzak, eta hazi transgenikoak aukeratu. Arrainik ez, baina botikak eta era guztietako osagai kimikoak gaineratuko deusaguz. Oilaskoaren orde, animalien neurribako esplotazioa izango da pipermina, eta artxoaren lekuan ipiniko doguz nekazari eta abeltzainei ordaintzen deusiezan soldata negargarriak.

Hementxe gure gamelu betea, edozein supermerkatutako apaletan aurkitu daiegun produktu plastifikatu estetikoa. Irribarretsu, kalitaterik onena eta preziorik merkeena uztartzen dituanaren harrotasunez. Are gehiago, telebistako iragarkietan segundo batzuk beteten baditu. Urrezko hogeiegi segundo. Erlojuaren orratzen ibilbide labur horretan murgiltzen dan produktua, urrez bustirik azaleratzen da. Sarritan, segundo horreek sinesgarritasuna emoten deusie iragarten dan edozeri, kalitatea edozelangoa izanik be. 'Telebistan iragarria', itsasten deusie etiketan.

Ahots sentsual, beti zorionsuek irudi koloretsuak, mugimendu azkarrekoak lagun iragarki guztietan. Etiketak ondo hornituta, produktu hori jan ezkeri askoz osasuntsuago egongo ei gara: 'A eta C bitaminak', 'barria', 'bio', 'integrala', 'omega 3duna', 'kolesterolik bakoa'. Itsasten ez dabezan etiketan, nork jakin?

Euskaldunak, haragikeria eta Done Jakue bidea



Iñaki Berazategi
(*Kazetaria*)

Done Jakue bideak ekarritako jende uholdea hain handia izan zen, eta hain etengabea jendearen joan-etorria, ezen bidearen babesean halako industria tertziario bat eratu zen, mandazain, juglare, ostalari, kleriko, puta, arrakero eta horrelako jende-moduak osatua, beti prest bide neketsuko penak arintzen laguntzeko; guztiek egiazko erromesen mistizismoarekin zerikusirik ez zuten milaka lagun mobilizatu zituzten bidearen trazatu osoan.

Dirudienez, Done Jakue bidea izan zen Erdi Aroko gertakari sozio-ekonomikorik garrantzitsuen, bai izan zuen iraupenagatik —hainbat mende iraun zuen— bai etenik gabekoa izategatik; ezin pareka daiteke, beraz, Palestinako Toki Sakratuetara eginiko erromesaldiekin, haiek ez baitzuten halako jarraitasunik izan, nahiz eta, hura lortzeko, Gurutzadak egin ziren, alegia, behinolako esku hartze militar haiek, Elizak bedeinkatu eta azkenean porrot egin zutenak.

Txorierriri dagokionez, badakigu bidearen adar nagusietako batek (Bizkaiko itsasoko kostaldetik joaten zenak) ekialdetik mendebaldera zeharkatzen zuela, Gernika eta Errigoiti atzean utzi ondoren.

Kasu egiten badiogu XII. mendean Probenzako trobadore batek, Aimery Picaud-ek (Aimeric de Pegulham ere deitua), Codex Calixtinus delakoan —orduko Done Jakue bidearen gidaliburu moduko hartan— idatzi zuenari, gure aurrekoek, denbora gutxi lehenago kristautuek, teologia arloan fidagarritasun gutxiak izateaz gainera, sexu ohitura oso bitxiak izaten zituzten:

"Eskualde batzuetan, Bizkaian eta Araban adibidez, nafarrak¹ berotzen ari diren bitartean, bere sexu-organoak erakusten dizkio gizonak andreari eta andreak gizonari. Nafarra zalea da, baita, abereak izorratzen: esaten da nafarrak bere mandemearen eta behorren atzeak eskegi egiten dituela, haietara inor hel ez dadin, bera baizik.

Baita, lizunki lastantzen du andrearen eta mandemearen alua. Hau dela eta, edozein pertsona ikasik gogor egin behar die nafarrei."

Hara gure aitita-amamak!

1 Antzinako Galietako herritarrentzat euskaldun guztiok "nafarrak" ginen, euskaradunok Gaztelakoentzat (ikus Cervantes) beti "bizcaínos" ginen bezala.

Zeure eritxia agertu gura badozu, gutunen atal hau zabalik daukazu. Ahalik eta eritzi gehienek lekua euki dagien, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta nortasun agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezkerro, Aikori!-ek bere esku dauka horretarako eskubidea. Zure eritxia aginduteko helbidea: Totoan, Aretxalde 1, 48196 Lezama edo aikortxori@yahoo.es

Osasuntsu izatea

Abenduaren 2an, Zamudion izan nintzen, dorretxean, herriko Emakumeen Elkartek antolatzen dituen hitzaldi horietako batean hain zuen ere. Oraingo honetan osasunaren inguruko hitzaldia izan zen eta dementziari buruz hitz egin zuen mediku batek, eta bizitza osasuntsuari buruz besteak. Zamudioko medikuak dira biak, eta zoriontzekoa da hitzaldira joandako emakumeei egingo dako harrera eta eskainitako arreta.

Fernando medikua dementziari buruz aritu zen. Alzheimer-i buruz emandako informazioa erabat praktikoa izan zen eta oso baliagarria. Bi puntu hauek azpimarratuko nituzke, batetik, gaixo hauekin tratua zaila izan arren ez dugula ahaztu behar pertsonak izaten segitzen dutela eta ingurukoen maitasuna oso-oso beharrezko dutela. Eta bigarrenik, gaixoen zainketaz arduratzen den pertsonak ere arreta berezia behar duela, lan honek desgaste handia dakarrelako.

Juanjo medikuak bizitza osasuntsua eramateko aholkuen inguruan jardun zuen eta osasunaren oso definizio zabala eta polita eman zuen: *fisikoki, psikikoki zein sozialki ondo izatea da osasuntsu izatea*. Bat nator definizio honekin, gehienetan osasun fisikoari baino ez diogulako errepara-

tzen eta gaixotasunen sintomak sendatzen saiatzen gara, sarri alferrik, gaixotasun horren jatorria bestelakoa izaten delako, adibidez disgusturen bat, asuntoren batek ematen digun egonezina, "irentsi" ezin dugun konturen bat eta abar. Honekin lotuta gogoeta hau egin nahi nuke, inteligentzia intelektualaz asko arduratzen gara, gero eta ikasketa gehiago egin pozago guztiok, baina oso denbora eskasa ematen diogu inteligentzia emozionala lantzeari, eta bestea bezain inportantea da bizitza orekua eramateko. Inteligentzia emozional hori landuko bagenu: auto-estima, zaletasunak, sentimenduak (desioak, maitasuna, egonezina, gorrotoak...), hainbat gaixotasun fisiko konponduta izango lirateke.

Hurrengo hitzalditxo baterako gonbidapena ere luzatu ziguten medikuek, menopausiaren eta sexualitatearen ingurukoa, oker ez banaiz, eta haien esanetan oso "sustanzio-soa" izango da. Bide batez Zamudioko Emakumeen Elkartekoei zorionak eman nahi dizkiet egiten ari diren lan interesgarriagatik. Hurrengo hitzaldian ere elkar ikusiko dugu!

Jasone Astola

Txorierriko udalak eta %0,7

Badira ikerketa batzuk, honako hau baieztatzen dutenak: Lehen Munduaren errekurtsioen %0,7 erabiliko balitz herrialde pobreen garapenerako, pobrezia desagertu egingo litzateke. Garrantzitsua da erakunde publikoak eredia izatea eta %0,7 horretara heltzea.

2004an, Txorierriko Udal guztiek eman dituzte diru laguntzak herri hauen garapenerako. Batzuk %0,7 horretara heldu dira.

Udaletan 2005. urterako aurrekontuak ixten ari diren une honetan, %0,7 horretara heltzera animatzen ditugu Behar Bidasoa GKEtik. Konpromiso horrek askotarako ematen du.

Bidasoa GKE



Parte hartze handia Txorierriko Euskara Egunean

Abenduaren 2, 3, 10 eta 11n Txorierriko VIII. Euskara Eguna ospatu zen Lezaman. Txorierriko Mankomunitateak hainbat ekitaldi antolatu zituen herritar guztiek euskararen alde egiteko: umeentzako jolasak, mahai ingurua, musika kontzertua, antzezlanak... Pozik dago Mankomunitatea lezamarrek emandako erantzunarekin: *"Jende gutxi batu zen mahainguruan, baina beste ekitaldi guztietan parte hartze handia izan zen"*, esan digu Lurdes Lasuen euskara teknikariak. Hala ere, beste herrietako txorierritarren falta sumatu du ekitaldi batzuetan. *"Txorierritar asko bildu ziren Lezaman 'Kutxidazu bidea, Ixabel' antzezlanaren ikus- teko, baina ez zen horrela gertatu beste ekitaldi batzuetan. Eta pena da, ekitaldiok txorierritar guztiei zuzenduta baitzeuden"*.



Okerrak zuzenduz

Gaztelumendiko oroitarria

Aurreko aldizkarian, Gazte-lumen- diko oroitarriari buruzko artikulua argi- taratu genuen 30. orrialdean. Testuaren amaieran hau aipatzen zen: *"...ezinbestekoa da Udalak gai horre- tan sartzea, irtenbide egokia emate- ko"*. Horrekin batera, hurrengo esaldi hau ere agertu behar zen: *"Eta Txorierriko Mankomunitate-aren batzarretan ere arazoa aztertu behar- ko litzateke, konponbide egoki hori topatzeko"*.

Kataluniako ordezkariak Loian

Urriaren 25etik 31ra bitartean, Euskal Herria-Catalunya I. Kultur Astea egin zen Bilbon. Ekitaldi nagusiak Bilbon egin ziren, baina Loian ere izan ziren ekitaldi bi: batetik, Lleidako Didí pailazoak eta, bestetik, Grallerseko banda. Gainera, La Florestako udalbatzaren ordezkariak ere bertan izan ziren. Aurreko aldizka- riko 8. orrialdean, Vicente Arteagoitia Loiuako alkateak eta Fermin Garin Kultura zinegotziak harrera egin ziete- la esan genuen, baina informazioa ez da zuzena: Vicente Arteagoitia Loiuako alkateak eta Etor Irazola Kultura zine- gotziak egin zieten harrera.



Txorierriko XIX. Gabon Kantan Jaialdia aurkeztu da



Abenduaren 11n Txorierriko XIX. Gabon Kantan Jaialdia aurkeztu zuen Ipar Alde abesbatzak Derion. Udaletxean hainbat lagun batu ziren, haien artean Luis Ramon Alvarez Lezamako alkatea eta Mankomunitateko presidentea, Lander Aiarza Derioko alkatea, Etor Irazola Loiuko Kultura zinegotzia eta Ramon Bustamante kazetaria.

Jose Ramon Cadenato Ipar Alde abesbatzaren presidentea jaialdia aurrera ateratzen laguntzen duten guztiei eskerrak eman zizkien. Hala ere, jaialdirako egunak direla eta, "ahots zuri eza" aipatu zuen.

Bertan bildu ziren lagunek Derioko abesbatzaren lana goraipatu zuten eta,

kultura-mailari dagokionez, herriari egiten dion ekarpena gogoratu zuen Aiarzak. *"la 20 urte bete ostean, konpromisoari bultzakada handiagoa emateko ordua da eta nazioarteko jaialdiren bat egitea baliteke etorkizunean".*

Aikor! aldizkaria kaleratu orduko, egin dira Gabonetako kontzertuak Larrabetzun, Lezaman eta Sondikan, baina Bizkaiko abesbatzez goatzeko aukera izango dugu oraindik. Horrela bada, abenduaren 23an kontzertua eskainiko dute Loiuko San Pedro elizan, 19:30etan; 30ean, Zamudioko San Martin elizan, 19:30etan; eta urtarrilaren 5 eta 6an Derioko elizan, 19:30etan eta 12:30etan, hurrenez hurren.

Enpresa sortzeko ikastaroa Behargintzaren eskutik

Urtarrilaren 10etik martxoaren 23ra bitarteko Negozio txikien sorrera ikastaroa antolatu du Txorierriko Behargintzak. Enpresaren bat abian jartzeko asmoa dutenei zuzenduta dago ikastaroa, eta bertan negozioa kudeatzeko formazioa eta aholkularitza eskainiko zaizkie. Negozioaren plana ere egingo da. Ikastaroa 100 ordukoa da eta arratsaldeetan egingo dute. Parte hartu nahi dutenek izena eman dezakete abenduaren 31ra arte Txorierriko Behargintzan.

Nazioarteko txartela Gazte Informazio Bulegoan

Txorierriko Gazte Informazioarako Bulegoak nazioarteko aterpeke, gazte, ikasle eta irakasle-txartelen abantailak hurbiltzen dizkizu. Txartelok mundu osoan daude onartuta eta hainbat deskontu eskaintzen dute ostatuetan, garraioetan, antzerkietan eta museotan, besteak beste. Txartelok Behargintzako Gazte Informazioarako Bulegoan eskura daitezke.

Azoka solidarioa Lezaman

Abenduaren 23ra arte azoka solidarioa izango da Lezaman, Behar Bidasoa gobernuz kanpoko erakundeak antolatuta. Pereirako Garapen Guneako tailerretan egindako materiala (panpinak, erlojuak...), Gabonetako postalak eta erabilitako jostailuak salgai egongo dira bertan. Azokan batzen den dirua Garapen Guneako Emakumeentzako Lanbide Heziketa eta babes Zentroa bultzatzeko erabiliko da.

Beste alde batetik, GKE eta besoetako egiteari buruzko informazioa ere eskuragarri izango da azokan.

Martxoaren 19an helduko da Korrika Txorierrira

Korrika 14 Orreagatik aterako da martxoaren 10ean, arratsaldeko 6:30etan. Hamar egun geroago, eta 2.150 kilometro egin ostean, euskararen testigua eskuz esku ailegatuko da Bilbora. “Jomuga Orreaga izango da, euskararen ezaugarriei eus-

teaz gainera bertako euskara propioa -ri eutsi egin dion herria delako. Eta helmugarako Bilbo aukeratu dugu: euskarak gizarte modernoan lekua baduela erakusten duen hiria”, azaldu dute antolatzaileek. Euskal Herria euskalduntzen, ni ere bai lelotzat hartu eta Andolin Eguzkitzari omenaldia egingo zaio edizio honetan.

Martxoaren 19an, arratsaldeko



5:46ak inguruan, Erandiotik sartuko da Korrika 14 eta, Txorierrira osoa zeharkatu ondoren, Erletxerako bidea hartuko du.

Beste alde batetik, Korrika Laguntzailea kanpaina abian jarri dela aipatzekoa da. Euskal Herriko 300 komertzioetan beherapenak izateko aukera dauka Korrika Laguntzailea egiten den lagunak, 12 euroren truke.

Olerki lehiaketa

Mario Angel Marrodan IX. olerki saria antolatu du Marrodan Olerki Elkartek. Modalitate bi egongo dira lehiaketan: euskara eta gaztelania, eta lanak argitaragabeak izan beharko dira. Gaia libre izango da eta 1000 bat bertsok osatuko dute lanok. Hirukoizki aurkeztuko dira eta egilearen izena, helbidea eta telefono zenbakia ere agertu beharko dira. Horrezaz gainera, parte hartzaileek idatzi bat bidali beharko dute, liburua beste lehiaketa bateko erabakiaren zain ez dagoela edota haren zatirik ez dela inoiz argitaratu adierazteko. Kategoria bakoitzeko irabazleei Mario Angel Marrodanen plaka eman- go zaie saritzat eta liburuaren 25 ale argitaratuko dizkiete.

Lanok hurrengo helbidera bidali ahalko dira 2005ko urtarrilaren 15era arte: Marrodan Olerki Elkartea. Abadetxe, 7 – 48180 Loiu. Informazio gehiago 607956196 telefono zenbakian.

Bengoetxea eta Berasaluze, Getxoko txapelketaren irabazleak

Azaroaren 21ean Gabonetako Txapelketa izan zen Getxon eta Lezamako Asier Bengoetxea eta Berrizeko Berasaluze pilotariak nagusitu ziren bertan. Bengoetxeak eta Berasaluzek 22-13 irabazi zieten Enkarterrietako Lopez Aldai eta Tejero II pilotariei.

Berohi kooperatibak Txemi Cantera saria jaso du

Euskadiko Lan Sozietateen Taldeak Gizarte Ekonomiako nazioarteko Txemi Cantera saria eman dio Berohi kooperatiba-sozietateri. Epaimahairen ustez, Gizarte Ekonomiaren solidaritate, parte-hartze eta demokrazia-baloreak betetzen ditu Zamudioko enpresak.

Berohi 2000. urtean sortu zen, Caritas eta Rezikleta kooperatibak bultzatuta. Arropa birziklatzeaz gainera, 45 urtetik gorako langabetu, etorkin eta familiaren ardura nagusia duten andrazkoei ematen zaie enplegua bertan.



Jonathan González Illes Balearseko fitxaketa berria.– Zamudioko Jonathan Gonzalez txirrindulariak urtebeteko kontratua sinatu du Illes Balears taldearekin. Jonathanek Errioxa eta Asturiaseko itzulien etapa nagusiak irabazi ditu aurten.

Hedabideen dirulaguntzen inguruko gogoeta egin du Topaguneak

Urriaren bukaeran, “komunikabideetan euskararen erabilera sendotu eta indartzeko eta euskal komunikabideen egitasmoak bideragarriago egiteko” banatzen dituen 2004. urterako dirulaguntzen ebazpenak jakinarazi zituen Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak. Azken urteotan dirulaguntzok izan duten bilakaeraren inguruko hausnarketa plazaratu du Topagunea Euskara Elkartearen Federazioak.

Dirulaguntzen deialdi publikoa ez dela urtearen lehen hiruhilabetearen kaleratzen azaldu du Topaguneak. “Azken urteotan irailetik aurrera ezagutu izan ditugu urteko jarduerari dagozkion diru laguntzen ebazpenak, eta egitasmoak zuzentzen ditugunontzat oso zaila da ganorazko kudeaketa eta aurreikuspenak egitea urteko azken hiruhilabetearen jasotzen badira datuak”. Era berean, dirulaguntza jasotzeko datak ere asko atzeratzen direla salatu du,

Zalantza egoera

Beste alde batetik, azken urteotako dirulaguntzak handitu ez izanak komunikabideentzat dagoen diru kopurua gero eta egitasmo gehiagoren artean banatzera behartzen duela aipatu dute. “Sektore guztia zalantza egoeran dago. Batetik, sortzen diren egitasmo berriak segurtasun falta nabariarekin sortzen direlako; bestetik, lehenagotik datozen egitasmoak ere zalantza egoera berdina daukatelako”. Tokiko aldizkariaren kasuan, Eusko Jaurlaritzako komunikabideen deialditik jasotako dirulaguntzak %3,50ean murriztu dira azken bi urteotan, nahiz eta sektorea hazkunde prozesuan izan.



Euskara elkarteek bat egiten dute Topaguneak egindako gogoetarekin

Horrezaz gainera, euskarazko hedabideek zein testuingurutan lan egiten duten kontuan hartzekoa dela gogorarazi dute. “Hedabideen merkaturak euskarazkoek leku txikia dute eta hartzaile potentzialen kopurua ere txikiagoa daukate. Euskarazko hedabideen iraupena ezin da merkatulegeen menpe izan, euskarazkoak ez baitaude berdintasun-egoeran beste hedabideekin”. Topagunearen ustez, merkatuaren baitan egongo balira euskarazko komunikabideak ez lukete inolaz ere lortuko gaur

egun duten kalitatea, zabalpena eta eragina.

Euskarazko hedabideentzako dirulaguntzak banatzeko erabiltzen diren irizpideak ere aztertu behar direla pentsatzen du Topaguneak. “Gai hau bi aldeei dagokiela badakigu, eta alde biek dugula lana ahalik eta modu zuzenean eta dagokigun epeetan betetzeko ardura”. Aipatutako kezkei irtenbidea emateko behar diren bideak jorratzeko prest dagoela jakinarazi du Topaguneak.

Asier Serrano, abeslaria

“Hitzaren gerrara jo behar dugu”

Kantari, idazle, poeta eta solaskidea dugu Asier Serrano, baina berak ez du bere burua inon kokatzen, eta kontu-kontalaria dela nahiago du esan. Duela gutxi Zamudiora etorri zaigu “Gerrari bai” bere bigarren diskoa aurkeztera.



“Elkarri barkatu behar dizkiogun bekatu horiek mahai gainean jarri eta elkarrekin hitz egiteko ordua da”

ilusiorik ez desilusiorik. Nekatuta gaude asko, gauzek aurrera ez egiteaz, bestelako irakurketak egiteaz... Ni zain nago, baina aktibo; edozein mezu entzuteko prest. Eta berdin dit nondik datozen.

Zeri buruz hitz egin edota idazteko beharra dago gaur egun?

Alde batetik, Asier egoista daukagu: poetetan barneko mamuak islatzen dituen, gizartean bere burua kokatzeko beharra duelako. Eta, beste alde batetik, gizarteko gaiez kezkatuta dabilen Asier. Kontu horiek konpontzeko arma ezin hobea da hitza, nire ustez. Komunikazioan sinistu behar dugu; Euskal Herrian, batez ere.

Lehenengo urteetan jorratutako kaleko poesia Gerrari bai lanean aurkitu dugu berriro...

Hautzarotik nerabezarora igarotzearen adierazle zen nire poesia garai hartan, eta asal-datzera itzultzeko beharra izan dut, baina era koherenteago batean. Gerrari bai diskoa hortik dator, izan ere menderakaitz izateko arrazoi piloa dago gaur egun.

Gerrari bai bakerako proposamena da.

Ez dago gerrarik gabeko bakerik eta Euskal

Herrian hitzaren gerrara jo behar dugula pentsatzen dut, baina beti onerako. Gerrari bai esatea autokritikari bai esatea da, eta elkarri barkatu behar dizkiogun bekatu horiek mahai gainean jarri eta elkarrekin hitz egiteko ordua dela uste dut.

Eta Anaren kanta itxaropenerako abestia da...

Egia esan, nire frustrazio guztiak bota nituen disko honetan, ez nuelako inongo itxaropenik ikusten. Baina taldekideek itxaropenari atetxo bat zabaltzeko esan zidaten eta abesti hori egin nuen... Ez dut nire belaunaldian sinisten, ez baitugu oraindik fruiturik eman; hala ere, datozenengan ere ez dut sinisten... Baina zeinek daki!

Baina badirudi itxaropenari bidea zabaltzeko gogoia dagoela...

Horrela sinistu nahi dut, baina ez daukat ez

Beste euskal talde batzuek bezala, bertan behera utzi behar izan dituzu hainbat kontzertu Cadizen, Madril...

Gure kasua ezberdina izan da, areetako nagusiek ez baitzuten mehatxurik jaso, baizik eta mehatxuak jasotzearen beldur ziren. Horretan ezagutza eza handia ikusi dut, baina garrantzi handirik ez ematen saiatu naiz. Nire ustez, askatasuna dago edozein gauza azaltzeko, baina askatasun hori izango ez ote den beldurra ere bai.

Eta hiri gorririk? Badago?

Egon, badago. Afrikako oihanean galduta nenbilela inoiz baino argiago izan nuen non neukan nire hiri gorria. Eta nire buruari egindako poemarik ederrena bota nuen bertan: ze gertu sumatzen zaitudan, nire aberri bakarra, nire lurraldea, nire hiria, nire bihotza. Ni ezkerri eta gorria naiz, bihotza ezkerrean eta gorri dudalako. Eta bihotzean kokatzen dut nire hiri gorria.

Heldutasunerako bidean

Oztopoak gaindituz eta arazoei aurre eginez heltzen gara helduarora. Gazte garaian, geure buruan sorturiko hainbat itaunen inguruan izaten ditugun zalan-tzak direla medio, erabakiak hartzen ditugu, lehenengo aldiz, bizitzan topatzen diren arazoei aurre egiteko



Gure ahotsa inoiz baino ozenagoa bada ere, garrasi gorrak botako bagenitu bezala sentiarazten gaituzte

Denborak aurrera egin ahala, hazten goazen neurrian, gure begiak zabalitzen doaz, bideari ekin behar baitiogu. Umezaroak alde egiten duen heinean inguratzen gaituenaren kontzientzia hartzen dugu, gizartean barneratzen gara alegia.

Batzuen ustez, garai ilunak dira bizi behar ditugun hauek; aro materialista

batean murgilduta gaudede, norberaren interesak objektibo nagusi bilakatzen dira boterean diren agintarien eskutik. Aldakuntzen garaian gaudela sines-tarazi nahi digute, hain erraz izango balitz bezala.

Gaur egun, gazte-riaren ahotsa gero eta ozenagoa ari da egiten. Bat ez gatozenaren kontra egiteko aukera ugariagoa da antzina izaten zenaren aldean, baina gure ahotsa inoiz baino ozenagoa bada ere, garrasi gorrak botako bagenitu bezala sentiarazten gaituzte.

Egia esan, arbasoe-kin konparatuz, geure patua bideratzeko aukera aberats bezain interesgarriagoak badi-tugu ere, gero eta zai-lago izaten zaigu hau erabakitzea, hau da,

geure bidea jorratzea. Oso gazte izanik argi eduki behar da zein motatako lane-tan jarduteko asmoa duzun. Zailtasun berdinik ez du erabakitze horrek guztion-tzat; zaletasun, lan eskaintza, zein norbe-raren ahalmenaren balorazioaren araberakoa izaten baita. Horren azterke-ta pertsonala gutxi balitz, zer egin deza-kegu, aipaturiko ezaugarri horiek kontrajarriak badira?

Betidanik esan izan digute liburuei aurre egin behar zaiela norberaren geroa-ren jabe izateko. Hala eta guztiz ere, sarri askotan ez da erraza izaten jakitea ikaske-tak betebeharrak edo hautatutako zerbait ote diren.

Bestalde, gazteok gaur egun benetan hautetsi ditzakegunak, gure aisialdi moduak diren arren, askorentzat hauek erabat kritikagarriak dira. Gero eta gaztea-go izanik, nerabeak prest sentitzen dira eurek uste duten nagusien munduan murgiltzeko. Alkohol zein beste tankera anitzetako drogak lehendabizi frogatu dituztenen adina beheratzen ari da tama-lez, hori nola pairatu ere ez dakiten ardu-radunen muturretan. Ulertezina izan daiteke, honen inguruan dagoen informa-zioa ugaria dela kontuan hartzen badugu; erakundeek, udalek eta beste erakunde batzuek baliabide mordoa jartzen dute edonork eskura dezan. Behin eta berriz soluzioak bilatzen saiatu diren arren, ez da erraza izaten irtenbide horiei era erakar-garrian eta eraginkortasunez gazte-jende-ak eustea. Honenbestez, honen inguruan ere, erabakitzen jakin behar da.

Indar berritzaileekin gatoz gazteok, harrigarria da atzera buelta eman eta gaz-teriarren jarrera ezberdinak aroetan zehar nola aldatu diren ikustea. Garaiak nahi beste aldatuko ziren batzuentzat, beste askorentzat, ordea, ez. Ez da batere erraza gaur egun bizi garen sasoi honetan gazte-ok zer-nolako garrantzia dugun zehazteak. Etorkizuna garela dioten arren, prest ote gaudede horri aurre egiteko?

Testua: Leire Palacios

“Laguntzeko era asko dagoz, baina, nire ustez, hauxe da onena”

Tomas San Roman Zubiaur, 30 urte, Emilio eta Rosa Mariren semea. Derio eta Zamudio arteko mugan dagoen Legasu baserrikoa, 4 urtegaz Derioko Txosnara etorri bazan be. Berak dinoanez, "nire Txorierri maitean, munduko haranik politenean". Gaur egun asago bizi da, Mexikoko Leon herrian, eta zertan?

Apaiz-fraile misiolari beharretan.

Testua: Bestorrene/ Argazkiak: Tomás San Román

Zerk eroan zaitu hain urrun?

Txikitan, Larrondoko eskolara joan nintzan, eta katekesia Derioko Kili-Kilin egin neban. 14 urte nebazanean, nire bizitzak aldaketa sakona izan eban. Fedean hazi, eta gehiago behar dabenez arduratu nintzan. Brasilen misio esperientzia izan ondoren, Garapenerako Laguntza proiektuetan lagundu neban eta Jainkoaren deia sentituz Hijos del Amor Misericordioso kongregazioan sartu nintzan. Leonen urtebetez eta Atarrabian (Nafarroa) 6 urtez egon ostean, apaiz egin nintzan Derion 2000ko uztailaren 9an. Urte bereko abuztuan Mexikoko lurra ikutu eta bertan daroadaz 4 urte eta 3 hilabete. Leon hirian, Mexiko erdian.

Zein da zure eguneroko bizimodua?

Era askotako lanak daukadaz. Egutero besteei laguntzeko Jainkoak dinoanari zabalik. Gehienetan entzun, jendeak gehien behar dauana, arazoak, zalantzak, aitorpenak... 6:30ean altxatu eta meza emon eta otoitz egin nire komunitateko kideakaz. Bazkaldu arte gaiak prestatu, gaitxoak bisitatu, zitak... eta abade legez lagundu. Bazkalosteko atseden apur bat, ahal danean, eta arratsaldean pobreen ospitale-
ra joan edo hiri inguruko garapen laguntzetan aritu 17:00etan bokazioa daben gazteekaz zita. 19:00etan kapilau nazen Tenpluan meza eta osteko alkarrizketa (hemen lagun asko etortzen da mezara).

20:00etan familiakaz, gazteakaz, misioak, nagusien formakuntza... (egunaren arabe-
ra) eta 22:00etan komunitateko kideakaz alkartzea eta gaueko otoitzaren ostean atsedena. Asteburuetan mezaz betetzen gara (domekatan 5 be bai) eta katekesia, formazioa... edo danadalakoa.

Zertaz arduratzen zara?

Gazteen ardura daroat (2 gazte talde eta misiolari talde bat) eta



“Datorren urterako Oxaca eta La Candona (Chiapas) oihanetara joateko proiektua daukat”

parrokiaren katekesia bere nire eskuetan dago (55 katekista eta 900 ume). Batzutan Nayarit oihanera joaten gara, indigenakana, misiolari gazte talde bategaz.

Oso esperientzi gogorak dira eta hiriko gazteei lagundu egiten deutsie besteen beharrianakaz sentibilizatzeko. Datorren urterako Oxaca eta La Candona (Chiapas) oihanetara joateko proiektua daukat. Hainbeste gauza dira... egun osoan egongo nintzateke nire esperientziak kontatzen.

Zer gurago dozu deitzea: frailea, abadea, misiolaria...?

Ni apaiza naz, eta kongregazio erlijioso baten nagoanez,

fraile bere banaz. Eta misiolaria bere bai, misioatan nagoalako. Egokiena hauxe izango litzateke, "besteei behar daben laguntza emoten deusiena" izatea. Apaiz-fraile misiolaria.

Zer moduz zure euskara?

Etetik urten nebanetik gero eta gutxiago erabiltzen dot, eta orain Mexikon gutxiago... Pena emoten deust baina... Orain naualk dialekto indigena ikasten ari naz. Ez da erreza, baina jendearekin berba egiteko ondo dator. Euskaraz momentu bakarrak neure Bibliagaz dodaz. Opari bat izan zan eta neure meditazioak egiteko erabiltzen dot. Momentu batzutan Jaungoikoarekin euskeraz hitz egiten dot. Etxera noanean kosta egiten jat mexikar azentua uztea eta euskarara egokitzea.

Gaztea eta abade izatea ez da arrunta gaur egun.

Badakit nire bokazioa ez dala arrunta gaurko gazteen artean. Besteak ez dabela-ko esperimintatu zein gauza miragarria dan bizitza osoan zehar zerbitzatzea. Norberaren buruan gitxiago pentsatzea eta besteengana dedikatzea... Jesusek holan egin eban eta nik jarraitu egiten deusat. Laguntzeko era asko dagoz, baina nire ustez hauxe da onena. Jainkoak maite gaitu eta uste dot mundu honetan hori dala gehien sentidu behar dana. Ez dot gura honek sermoi itxura izan dagian, baina edozein gazte bultzatzen dot saiatzera.

Zelangoa da horko bizimodua?

Ezberdina. Modernitatea sartu egin da, eta, AEBen ondoan egonda, gehiago. Baina erro indigenak oraindik mantentzen dabez, horrek xumeago, gizatiarrago eta erlijiosoago egiten dabez. Jakina, dana ez da positiboa, aberatsen eta pobreen arte-

"Herri matxista da, eta andreen garapenerako proiektuak indarrez bultzatzen doguz, euren gizonengandik askeago izaten laguntzeko"

an diferentzia izugarria dago. Gehienak gitxigaz bizi dira, baina zoriontsu eta jai zale dira. Alkoholean eta droga merkeen estalpean bizi da jendea. Oso herri matxista da eta andreen garapenerako proiektuak indarrez bultzatzen doguz, euren gizonengandik askeago izaten laguntzeko. Gero ezkondu gabeko amen arazoa be badago eta seme-alaben kopurua handia da (batez beste, 4 edo 5 izaten dabez). 16 eta 18 dabezanak be ezagutzen dodaz...

Uff! Imaginatu, aitaren soldatatxuagaz baka- rrik. Honen erdian nago ni, laguna, abadea, maisua...

Zelangoa da horko janaria?

la danetara moldatu naz, baina pikante- ak (chilea) kalte handia egiten deust, danak pikatzen dau, umeen gozokiak be bai. Kolonean arazo larriak daukadaz eta kontu handiz ibili behar dot. Inoren etxean jaten dozunean, gatxa da hori, jende umilak kon- bidatu egiten zaitu maitasunez, eta ezin ezetzik esan.

Zer da gehien faltan botatzen dozuna?


Familia, lagunak, euskera, arraina eta nire Txorierrri haran polita, menditsua eta berdea. Baina hori dana ordezkatu daiteke jende xume eta miresgarri honeen ondoan bizitzeagaitik. Urte birik behin eskapadatxo bat egiten dot, indarrak hartzeko..., ze lurra asko tiratzen dau, eta hemen dauka- dan erritmo bizia itxi eta deskantsatu egin behar izaten dot.



"Gehienak gutxigaz bizi dira baina zoriontsu eta jai zale dira. Alkoholean eta droga merkeen estalpean bizi da jendea"

Badator, badator...

Izen ezberdinez ezagutzen dugu Euskal Herrian: Olentzero, Olentzaro, Orentzero, Onentzaro... Eta asko dira bere inguruan dauden istorioak: batzuentzat ikazkina da, beste batzuentzat artzaina, pertsonaia gaiztoa, kutuna, azken jentila... Kondaira edozein izanik ere, magikoa jarraitzen du izaten Gabon Gauean bere zain egoteak urtero.



Olentzerok harreman estua dauka suarekin, izan ere horrela esaten zitzaion Gabon Gauean tximinian erretzen zen enborrari antzina. Hurrengo egunean hautsak bildu eta etxeko aurrealdean zabaltzen ziren, etxea eta bertako lagunak espirtu gaiztoengandik babesteko. Hori ohitura paganoa zen, neguko solstizioan egiten zena. Ez dugu ahaztu behar suak zaharra berritzen duela, okerra garbitzen duela, indar berriaren adierazlea dela.

Enborra, sua eta euskal mitologia batu zituen Kristautasunak. Euskal Herriko mendietan bizi ziren jentilek sortaldetik zetorren hodei misteriotsu bat

ikusi zuten egun batean. Jentilik zaharrenek horrela esan zien besteei: *Kixmi (Kristo) jaio da. Gureak egin du.* Eta bere burua bota zuen kobazulo sakon batera. Besteak korrika hasi ziren mendi behera beldurraren beldurrez, eta zorua zapaltzean harritzarrak askatzen zituzten lurretik. Harri handi horiek zapalduta hil ziren guztiak.

Baina jentil bat bizirik atera zen. Jentil hori Olentzero dugu eta herrira jaitsi zen Jesusen jaiotzaren berri ematera. Handik hona Olentzeroren istorioa berpizten da urtero abenduaren 24an. Iluntzean hainbat ume eta helduek osatutako koruak kalera ateratzen dira

Olentzero bizkarrean eramanez; enborra antzina eramaten zuten bezala.

Eta abestu ere egiten zaio Olentzerori. Jentila morroi tripontzi eta edalea legeaz aurkezten da kantuetan. Egundoko tripakadak egitea gustatzen zaio, ospakizun paganoetan su inguruan izaten ziren tripakadak gogoratzeko nahian, ziur asko.

Olentzero ikazkina da eta urte osoan zehar txarto portatu diren umeei ikatza ekartzen die; onak izan direnentzat, berriz, opariz beteriko zaku bat jaisten du menditik. Zintzoak izan, beraz, Olentzerok dena ikusten du eta.

Larrabetzu



Abenduak 20-23

Udal ikastaroetan izena emateko edota berritzeko epea. Liburutegian, 18:00etatik 20:00etara bitartean

Abenduak 23 - urtarrilak 7

Umeentzako ekintzak ludotekan: ipuin-kontalariak, berbena, tailerrak, jokoak... 10:30etatik 13:30etara bitartean

Abenduak 27-31

Gazte eta helduentzako ekitaldiak: antzerkia, plastilinazko laburmetraiak egiteko tailerrak...

Abenduak 28, martitzena

Eriz Magoa. Eskolako gimnasioan, 17:30etan

Abenduak 29, eguaztena

Euskadiko Futbol Selekzioaren partida ikusteko irteera. Anoetara, Hondurasen aurka

Abenduak 30, eguna

Puzgarri eguna. Pilotalekuan, 11:00etatik 13:30etara eta 17:00etatik 19:30etara

Urtarrilak 3, astelehena

Patinatzeko Gasteizera irteera

Urtarrilak 4, martitzena

Kultur irteera Arriaga antzokira: *Spiderman, el espectáculo*

Urtarrilak 7, barikua

Gazte eta helduentzako antzerkia: *Dionisioren Guzurre.* Kultur aretoan, 19:30etan

Urtarrilak 14-16

Eskiatzeko bidaiak **Luz-Ardidenera**

Hori baik antolatuta

Abenduak 20

Poesia emanaldia: Xabi Borda. 20:30etan

Abenduak 23

Olentzeroren bila herritik zehar. Plazan, 15:30etan

Abenduak 24

Olentzero kalez kale zerran. 18:00etan

Abenduak 25

Gabonetako bertso saioa: Unai Iturriaga, Xabier Amuriza, Igor Elortza eta

Jon Lopategi. Hori Bai gaztetxean, 19:00etan

Abenduak 26

Zirku tailerra

Abenduak 27

PINera irteera. Plazan, 15:30etan

Abenduak 28

Elevator antzezlana (Gikiltxaro). 20:30etan

Abenduak 30

Filma. 18:30etan

Abenduak 31

Gabon Zaharreko kotiloia. Zirkua

Urtarrilak 4

Euskal jai hitzaldi eta bideo emanaldia. Iluntzean

Urtarrilak 6

Umeentzako antzerkia eta txokolatada. Arratsaldean

Urtarrilak 7

Arrakalak, Bihotz bakartien klubaren eskutik. Hori bai gaztetxean, 20:00etan

Urtarrilak 8

Larrabetzu auzoz auzo. Plazan, 09:00etan
Folk kontzertua. Hori bai gaztetxean, 22:00etan

Derio

Abenduak 22, eguaztena

Gabonetako bingo berezia, Hiru Gazte elkarteak antolatuta. Nagusien etxean, 19:30etan

Abenduak 24, barikua

Olentzero, Ipar-Alde abesbatza eta Tximintx Euskara Elkartearen eskutik. Udaletxean, 17:00etan

Abenduak 26, domeka

Dantza agerraldia, Lainomendi eta eskualdeko taldeen eskutik. Kiroldegian, 12:00etan

Abenduak 28, martitzena

Dantza omenaldia eta Jai Nagusia. Nagusien etxean, 18:00etan

Abenduak 30, eguena

Kultur irteera Arriaga antzokira: Queen, we will rock you. 19:00etan. Hilaren 16tik aurrera sarrerak salgai udaletxean

Urtarrilak 2, domeka

Zenbait xake joku batera Carlos Varasekin, Xake taldeak antolatuta. Nagusien etxean, 12:00etan

Urtarrilak 5, eguaztena

Erregeen kabalgata. Elizan, 18:00etan

Txorierriko XIX. Gabon Kanten Jaialdia, Ipar-Alde abesbatzak antolatuta. Elizan, 19:30etan

Urtarrilak 6, eguena

Txorierriko XIX. Gabon Kanten Jaialdia, Ipar-Alde abesbatzak antolatuta. Elizan, 12:30etan

Urtarrilak 8, zapatua

Mujer en el teatro antzezlan, Sutondoan elkartearen eskutik. Institutuan, 19:00etan

Urtarrilak 11-15

Erakusketa: Eta zu non zeunden? 60. hamarkadari begira. Txori Berri kultur elkarteak antolatuta. Kultur aretoan



Sondika

Abenduak 20-30

Sondikako Udala XIII. Gabonetako Posta-txartelen lehiaketa. Erakusketa aretoan

Abenduak 24, barikua

Olentzero eta Belen Biziduna, Txuma Olagüe abesbatzak, Gorondagana Ikastetxe Publikoko GEk, Gorantzaileak dantza taldeak, Ipar-Elaiak txistu taldeak eta Udalak antolatuta. Udaletxean, 17:00etan

Abenduak 27, astelehena

Bilboko PINera irteera. 10:00etan

Abenduak 29-30

Txiki Eguna 2004: haur eta gazte-entzako parkea, jolasak, lantegiak... Goronda Beko Udal Kiroldegian, 12:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara

Urtarrilak 3, astelehena

Gasteizko Izotz Jauregira irteera. 15:30etan

Urtarrilak 8, zapatua

Kultur irteera Arriaga antzokira: Spiderman, el espectáculo. 11:00etan

Urtarrilak 14-16

Luz-Ardidenera eskiatzera bidaia

Lezama

Abenduak 22, eguaztena

Olentzero jaia, Eskola eta Gurasoen Elkartearen eskutik. Eskolan

Abenduak 24, eguena

Olentzero jaia: kalejira eta opari banaketa, Gurutze dantza taldea, Zorritzetan euskara elkarteak eta Udalak antolatuta. Plazan eta frontoian, 17:30etatik aurrera

Abenduak 27-30

6 eta 11 urte bitarteko umeentzako irteerak: PINera, bolalekura eta antzerkita

12 eta 17 urte bitarteko gazteentzako irteerak: eskiatzera, bolalekura eta antzerkita

Abenduak 29, eguaztena

Euskadiko Futbol Selektzioaren partida ikusteko irteera. Anoetan, Hondurasen aurka. Zorritzetan euskara elkarteak eta Udalak antolatuta

Urtarrilak 14-16

Luz-Ardidenera eskiatzera bidaia

Loiu

Abenduak 23, eguna

Txorierriko XIX. Gabon Kanten Jaialdia. Ipar-Alde abesbatzak antolatuta. San Pedro elizan, 19:30etan

Abenduaren 23tik urtarrilaren 4ra bitartean

Liburu berrien erakusketa. Liburutegian

Abenduak 24, barikua

Olentzero: Gabonetako abestiak, opariak... Azoka lekutik Frontoira, 17:00etan

Abenduak 26, domeka

Kultur irteera Euskalduna jauregira: *Cascanuecesaren kondaira.* 16:00etan. Izena eman behar da hilaren 20tik 23ra bitartean udaletxean

Abenduak 27, astelehena

Gabonetako Jolas Parkea. Frontoian, 12:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara bitartean

Abenduak 28, martitzena



Loiuko Udala XI. Gabonetako Postal lehiaketaren sari banaketa eta Ipuin kontalaria, Buhamiak taldearen eskutik. Gimnasioan, 17:30etan

Loiuko Udala I. Xake Torneoa. 10tik eta 16 urtera bitarteko gazteentzat, 18:00etatik 19:30etara

Abenduaren 28tik urtarrilaren 4ra bitartean

Loiuko Udala XI. Gabonetako Postalen erakusketa. Kultur aretoan

Abenduak 29, eguaztena

Gabonetako Jolas Parkera irteera. 09:45etan. Izena eman behar da hilaren 20tik 23ra bitartean udaletxean

Txotxongiloak: *PRO_ISMO 0.* Gimnasioan, 17:30etan

Loiuko Udala I. Xake Torneoa. 10tik eta 16 urtera bitarteko gazteentzat, 18:00etatik 19:30etara

Abenduak 30, eguna

Karaoke-diskoteka. Frontoian, 17:30etan

Urtarrilak 2, domeka

Loiuko haur-azoka: erabiltzen ez diren jostailuak, bideoak, ipuinak... Frontoian, 11:30etatik 14:00etara bitartean

Urtarrilak 3, astelehena

Eriz Magoa. Gimnasioan, 17:30etan

Urtarrilak 4, martitzena

Pailazoak: Monda Lironda antzezlanea. Apika taldearen eskutik. Gimnasioan, 17:30etan



Zamudio

Abenduak 24, barikua

Olentzero Eguna

Pinotxo PK 3000 (filma euskaraz). Dorrean, 19:30etan

Abenduak 26-30

Gabonetako Jolas Parkea. Kiroldegian, 11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 17:00etara

Abenduak 30, eguna

Kultur irteera Arriaga antzokira: *Queen, we will rock you.* 19:00etan

Txorierriko XIX. Gabon Kanten Jaialdia, Iparralde abesbatzak antolatuta. San Martin elizan, 19:30etan.

Abenduak 31, barikua

Urte amaierako kotiloia: musika zuzenean, dantza, dibertsioa... Kiroldegian, 01:00etatik 05:00ak arte

Urtarrilak 3, astelehena

Barakaldoko Gabonetako Jolas Par-ker irteera. Izena emateko epea: abenduaren 27a baino lehenago

Urtarrilak 4, martitzena

Kultur irteera Arriaga antzokira: *Spiderman, el espectáculo.* 16:00etan


Urtarrilak 5, eguaztena

Supertrams filma ikusteko irteera. Izena emateko epea: abenduaren 27a baino lehenago

Olentzerorentzako gutuna

Badatoz Gabonak. Beno, egia esan, Gabon komertzialak aspaldian etorri dira “erostera gonbidatuz”.

Sasoi honetan umeeek Olentzerori idazteko ohi-tura dute, ohi denez, jostailuak eskatzeko. Hona hemen ume batek Olentzerori idatzitako gutuna.



Olentzero maitea:

Juan Felipe dut izena eta 9 urte ditut. Herri pobre batean bizi naiz eta lagun euskaldun batzuek kontatuta badakit zuk Euskal Herriko umeen desioak betetzen dituzula. Agian, nik, Euskal Herrian bizi ez naizenez, ez dut eskubide hori, baina saiatzearren ez dut ezer galduko... Urteetan idatzi diet Errege Magoei, Santa Klausiri, San Nikolasi... baina orain arte ez dira nitaz oroitu.

Nire gurasoek jo egiten gintuzten eta anaiak eta biok etxetik alde egin behar izan genuen; gurasoek seme-alabak jipoitu ez ditzaten lor dezakezu?

Kalean bizi gara beste lagun batzuekin batera; benetan maite gaituzten etxe batean bizi gaitzen lor dezakezu?

Gure lagunetariko batek ezul gogorra du estoldetan bizi behar izan genuenez geroztik. Ospitalera eramaten saiatu gara, baina beti bota gaituzte atetik sartu baino lehen; medikuren batek nire lagunari begiratzea lor dezakezu?

Nire anaia Luiz Albertok ezin dio goseari eutsi eta kaleetatik botata aurkitzen duena jaten du; inork goserik ez pasatzea lor dezakezu?

Lagunen arteko neska nagusia Olga da eta 11 urte ditu. Egun batean gizon nagusi batek eraman zuen eta itzuli denetik ez du berriro barbarik egin; egin dezakezu zerbait berari laguntzeko?

Azken gauza besterik ez dizut eskatu nahi, bizi poza itzul diezagukezu?

Gutun hau zuri heltzea eta gure desioak bete ditzazun espero dut, denok dakigulako Eguberri berbak zer esan nahi duen, ezta?

Eskerrik asko Olentzero.

Gabon zoriontsuak izan ditzazuela.

Behar Bidasoa GKE.

"Idatzi dut zerbait esateko beharra nuelako"

Gotzon Barandiaran larrabetzuarraren "Arrakalak" poesia liburua kaleratu berri du Susa literatura argitaletxeak. Gotzon, beste larrabetzuar batzukaz batera bihotz bakar-tien klubeko partaidea da. Taldea literatura irakurleek osatzen dute, eta Larrabetzun hitzaldiak egin, literatura aldizkari bat kaleratu eta errezitalak ere egiten dituzte. Hau da Areatzako mutilaren lehenengo lana, eta horregatik beragaz berbetan hasi gara, literaturaz, zelan ez.



Arrakalak atara barri dozu, baina zer dira arrakalak?

Arrakalak kezkatzen nauten gai askoren inguruan sentitzen dudana adierazteko eta irakurleagaz konpartitzeko aukeratu ditudan bideak dira. Gehienetan, horma batean arrakala bat ikustean, itxi eta konpondu egin behar dugula erabakitzen dugu. Baina badira arrakalatu eta bota beharreko horma asko, israeldarrek palestinarrak euren etxean preso egoteko egin dutena, esaterako, gurago nuke arrakalatu eta eroriko balitz, karteletako hormak ere arrakalatu egin beharko genituzke... Ekonomia neoliberal, eskuindar, atzerakoi eta basati honek bizitzeko oso modu estua inposatu gura digu, bihotzek gero eta leku gutxiago du gorputzetan eta nik ez dut bizitza eredu hau maite. Liburuko poemek, gutxienez zalantza sortu gura dute, dugun bizimoduaz, sinestarazi gura digutenaz, euskaldunen komunitatekoa izateak suposatzen duenaz.

Poesia liburu bat idatzi dozu, poesia idatzi zertarako?

Eta zertarako egunero-egunero lan egin? Zertarako borrokatu maite duzun horren alde? Idatzi dut zerbait esateko beharra nuelako, bizi naizen herriak pairatzen duen egoeraren eragile eta arduradun sentitzen naizelako.

*"Badira arrakalatu
eta bota beharreko
horma asko"*

Poesia oso tresna egokia izan daiteke sentimenduak azaleratzeko, gogoetak isiotzeko. Poema bat hezurretaraino sar dakizuke eta gai edo sentimendu baten inguruan ordura arte uste izan duzuna erabat aldarazi. Momentuko indar hori dauka poesiak, asuneri antzera, azala ukitzearekin batera itzelezko azkura sortzearena.

...Eta zer da bihotz bakartien kluba?

Roque Daltonek esaten zuen antzera, literatura, ogia lez, denona izan dadin ahalgintzen den literaturzaleen taldea gara, Larrabetzukoak eta Euskal Herrikoak. Arrekikili Euskara Elkartearen gaude eta irakurzaletasunarekin eta literaturarekin zerkusua duten ekimenen arduradunak gara. 2001etik hainbat egitasmo ditugu esku artean: errezitaldiak ematen ditugu herriz herri, Larrabetzun irakurleen txokoa dugu, bbk-literatura.org web gunea dugu (bertan dago taldeari buruzko informazio guztia), 2003an Literatura Eskola sortu genuen eta Eskolaren emaitza kolektiboa da *Linterna Gorria* literatur aldizkari digitala. Testuinguru horretan hainbat harreman egin ditugu eta ondorioz eten barik ari gara proiektu berriak proposatu eta gau-

"Poema bat hezurretaraino sar dakizuke eta sentimendu baten inguruan ordura arte uste izan duzuna erabat aldarazi"

*"Literatur sustatzaile
proskritoak gara bihotz
bakartien klubekook"*

zaten. Literatur sustatzaile proskritoak gara.

Arrakalak liburua zuzenean aurkeztekoak be egitekoak zaria, ezta?

Bai, hala da. Orain arte beste batzuen testuak erabili ditugu baina oraingoan gure testuak dira ikuskizunaren oinarri. Poemekin batera, Bego Vicario zinema zuzendariaren Arte Ederretako ikasleek egindako animaziozko laburmetraiak emango ditugu. Izan ere, animazio horiek liburuko poemen interpretazioak dira. Bihotz bakartien klubeko musikariek soinu-banda sortu dute, bi kanta egin dituzte, *Arrakalak* liburua kantuan jarri dute. Nestor Zabalaaren argazkiak ere jartzen ditugu. Oso emanaldi ederra da, askoren artean burututakoa, lan kolektiboa da eta bihotzez egindakoa.

Durango liburua erosteko modua egon da, zelan Durango?

Ni ez nau inork derrigortzen Durangora joaten, gura dudalako noa eta pozik gainera. Aurten beste batzuen liburuak saltzen egoteaz gain, neurea saltzen egotea egokitu zait. Zer esango dizut, ba, lotsa, erresponsabilidate itzela eta poza sentitu ditut. Lotsa gurago dudalako ez nabarmendu, erresponsabilidatea azken batean argitaratzen den unetik norbaitek irakurriko duela dakizulako eta irakurle horri begirunea sor zaiolako, gezurrik esan barik, eta poza ezagutzen ez nuen jende asko etorri delako liburua erostera eta askorekin berba egiteko aukera izan dudalako. Nire eskerrona adierazteko aukera

*"Arrakalak liburua
zuzenean aurkezteko
asmoa dogu"*



ere eman dit. Esker ona inork derrigortu barik liburuak erostera etorri den horri.

Eta hemetik aurrera zer? Idazle izaten jarraitu gura?

Lehen aipatu dudan lez, bihotz bakartien klubekook hainbat egitasmo ditugu esku artean eta horiek guztiak aurrera ateratzen nahikoa lan izango dugu. Esatekorik dudala pentsatzen dudan bitartean idazten jarraituko dut. Nire herria egiten jarraitu gura nuke.

Testua: Peru Arregi
Argazkia: Susa argitaletxea

Amerikara joan nintzan...

Neguko aroaz hasi ginan eta neguan amaituko da Ameriketarako bidaia hau. Lau urtaro, hamabi hilabete, eta kasu gehienetan hainbat urte etxetik kanpo eta etxera buelta barik.

Arin idazten dira lerro batzuetan handik-hemendik ikasitako eta entzundako artzainen bizitzaz, ardien gorabeherak... Baina, hara joandakoek arrantxo, mendi eta basamortuko lanen ostean ez eben etxeko beheko surik, ezta abarka manta barririk be.

Azkenengo urtaro honetan, mendia itxi eta arrantxora heldu ordurako basamortuan denboralditxo eman eta gero, Gabon aurretik herrira jeisten ziran.

Menditik eta herriko bide bazterretan joandakoen bizitzako hainbat atal josi barik gelditu jakuz, eta albadorrotza hartuta, azkenengo atal honetan aipatu beharreko datuak izendatuko dira. Adibidez, lan esku-bideak, soldatak, oporrak, etab.

60ko hamarkadan argitaratutako El pastor boletinean, holako datuak irakur daitezke: oporrak, hamabost eguneakoak, patroiak ordainduak; kontratuen sinadurak, sarritan, presioakaz; egunero 15 ordu inguru lan eginda egunean 8,25 \$ irabazten zan, urtean 3.000 dolar; gaixo-



La Touraine barkua

*Testua eta argazkiak :
Amagoia Guezuraga*



Ely(Nevada) Murala, margolariak Don/ Jared Gray

aldiak, osasun falta... Azken honeetan buruhaustekak eta bakardadeak eragindako arazoak zoro amaitzeko modukoak ziran.

Baina badoguz ondo konpondu ziranak eta arrantxoan jabe egin ziranak, edo ardiak itxita, lan mota aldatuz, bizitzari aurre egin eutsienak.

Adibidez, Tomas Etxebarriak ardiak itxi eta trenbidean eta tabernan lanean hasi zan.

Loiuko Hilario Larrondok, arrantxoan, eraikuntzetan lan egin eban; eta joandako andrazkoak, arrantxoko sukalde lanetan eta beste asko ostatueta ibili ziran, janariak prestatu, gelak atondu, eta arropak garbitzen zeregina izaten eben.



Ondoko argazkian agertzen dira Larrondo Gastañagatarak (1959); erdian Maria Gastañaga Hilario Larrondogaz ezkondua eta euren seme- alabak(ezkesk.):

*Mary, John, Isabel, Maria Gastañaga Fernando, Ana, eta Joe



Argazki honetan agertzen dan zamudioztarrak, Jose Aldanak, arlo askotan lan eginda, ospe handia lortu eban merkataritzan, eta ez edozelangoan: indioakaz tratuak egiten ebazan, narruak lortu eta salduz.

Ameriketara joan nintzan... lehenengo alean azaldu zan lez, 1892tik 1924ra bitartean joandako batzuen izenak aipatu dodaz, eta hemen dira urte amaieran joandako batzuen datuak.

URRIA

<i>Izena</i>	<i>Adina</i>	<i>Nongoa</i>	<i>Noiz heldu</i>	<i>Nora</i>	<i>Kontaktua</i>
Jose Mennzunegui	17	Lezama	1900/10/01	Havana	Osaba
Braulio Gastanaga	23	Loiu	1908/10/11	Elko (Nevada)	Laguna, Antonio Pujana
Hilario Larrondo	24	Loiu	1909/10/18	Elko (Nevada)	Laguna Braulio Gastañaga
Jose Choustacha	25	Loiu	1909/10/18	Elko (Nevada)	Laguna, Braulio Gastañaga

AZAROA

<i>Izena</i>	<i>Adina</i>	<i>Nongoa</i>	<i>Noiz heldu</i>	<i>Nora</i>	<i>Kontaktua</i>
Antonio Barrena	17	Larrabetzu	1920/11/02	Ryde (California)	Lehengusua, Gregorio Lecue
Antonio Lecue	18	Larrabetzu	1920/11/02	Ryde (California)	Anaia, Gregorio Lecue
Tomas Zarrabeitia	23	Larrabetzu	1920/11/12	Adriatic barkuan marinela	

ABENDUA

<i>Izena</i>	<i>Adina</i>	<i>Nongoa</i>	<i>Noiz heldu</i>	<i>Nora</i>	<i>Kontaktua</i>
Leon Zarate	21	Zamudio	1913/12/12	Hagermon (Idaho)	Lehengusua, Felix Gamboa
Higinio Bilbao	30	Derio	1913/12/25	Helbidea zehaztu barik	
Francisco Uriguen	20	Larrabetzu	1919/12/01	Broadway (NY)	Laguna Raymond Rodriguez

Urriko zerrendan barriro agertzen jakuz Larrondo abizenekoak. Larrondo, Larrondo eta Larrondo... joandakoen artean. Loiu ko Larrondoztarak batu eta "Larrondo & Company" sortzeko moduan! Baina ez zan izen kasua.

1909ko urrian Hilario Larrondo joan zen lehenengoz, eta barriro

be 1915ko apirileko zerrendetan agertzen jaku bera. Oraingo honetan emazteagaz doa, Maria Gaztañaga sondikarragaz. Hilario soldadizketik alde eginez Ameriketara joan zan eta Glenns Ferry herrian lan egin eban 1912rarte. Euskal Herrira itzuli eta 1915ko apirilaren 28an, Mariagaz ezkondu zan eta Idahora bueltatu ziran. Delamare eta Glenns Ferryn bizi ziran eta han izan ebezan seme-alabak.

Eta hemen dogu Isabel Larrondo Gaztañaga, bere senarragaz. Nor? Ba, horra hor Jim Jausoro. Boiseko eta amerikar euskaldunen arteko soinuari ospetsua, oraintsu zendua (2004 abenduaren 2an).

2000. urteko udan, beragaz berbetan eta galdetuz nongoa nazen, Txorierritarren mapa arin aztertuz, atean esan eustan, "*Nire andrea Sondikakoa da*". Nahiz eta Isabel Ameriketan jaio, beste askok bezala sustraiak ondo errota dabez eta Ameriketan jaioak dira bainaeuskaldunak.

Isabel Larrondoren datuak eta argazkiak *Basque oral history project*-erako, Daniel Chertudik egindako elkarrizketan oinarrituta daude.





Kalitaterik onena etxetik atera barik

Jertse bat aitarentzat, liburu bat arrearentzat, ahaztutako mahatsak, pazko lorea... Txorierrin badaukagu zer erosi, eta merke, gainera. Derioko dendek **"Comprar sin desplazarse es ahorrar sin enterarse"** kanpaina jarri dute abian Gabonetan, eta Marimar Mellado bertako Zerbitzu eta Merkataritza Elkarteko presidenteak eman dizkigu azalpenak.

Derioztarrek eta txorierritarrek Gabonetako erosketak bertan egitea da zuen helburua...

Bai, helburu hori lortzeko jarri dugu abian kanpaina hau. Dendetako ateetan izeia edo abetoa ipiniko dugu, geure logotipoarekin. Poltsa bereziak ere atera ditugu, eta dendarik gehienak zabalik egongo dira egun osoan hilaren 20tik 24ra eta urtarrilaren 2tik 5era. Merkataritza Ganberak erakusleihen lehiaketa antolatu du Bizkai osoan, eta batzuek parte hartuko dute. Derioko Udalak ere sari bat emango du.

Zer eskaintzen zaie bezeroei Derion?

Askok Bilboko zerbitzua hobea dela pentsatzen dute, baina hemen ere denetarik daukagu: informatika, altzariak, liburu dendak, janari zerbitzu bikaina... Eta azalera handiekin alderatuta, arropa eskaintza txikiagoa izan arren, herrian ere markarik onenak topa ditza-

"Derion 84 denda inguru daude, eta eskaintza nahikoa da oinarritzko beharrianak betetzeko"

kegu. Derion 84 denda inguru daude, eta eskaintza nahikoa da oinarritzko beharrianak betetzeko, nire ustez.

Eta zein abantaila dauka herrian bertan erosteak?

Tratua estua goa da: arropa etxera eraman dezakezu probatzeko, dirurik izan ezean geroago ordain dezakezu... Bilboko denda batera sartu, eta ezer barik irteten bazara, ez da ezer gertatzen, baina hemen badirudi beldurra ematen duela. Eta gu poz-pozik gaude jendea bakarrik begirtzera sartzen bada. Askotan beste leku batzuetara joaten gara uste dugulako bertan ez dagoela erosteko aukerarik. Gastatzen dugunaren %80 baino gehiago herrikan kanpo gelditzen da, eta pena da.

Kalitatea ere...

Merkataritza Ganberak egindako ikerketaren arabera, oso ondo gaude kalitate aldetik. Edozein lekutan topa



"Gastatzen den %80 baino gehiago Txorierritik kanpo gelditzen da"

daitezkeen markak Derion ere baditugu. **Eta merkeago aterako da...**

Bai. Kanpora irtenez gero, denbora eta dirua galtzen dira joan-etorrietan. Horrezaz gainera, beti izaten da benetan behar ez den gauzaren bat erosteko arriskua...

Zer aurkituko dugu Derioko dendetan Gabonetan?

Betiko tratua, prezioaz eta kalitateaz aparte, Gabonetako giro itzela. Dendak eta kaleak berezi apainduko dira, erosketak gusturago egiteko.

Testua eta argazkiak: Iñaxo Marina

"Ez dut ahaztu nondik natorren"

Xabi Aburruzagak 'Bizkaiko Trikitixa' liburua argitaratu du Durangoko Azokarako. Zamudioko trikitilariak Bizkaiko tradizioko 16 kantu batu ditu lan horretan.

Testua: Itxaso Marina

Nondik nora sortu zen proiektua?

Ezustean. Rufino Arrola Andrakako soinulari ospetsuaren piezak biltzen hasi, eta konturatu orduko 10 bat abesti neuzkan. Orduan, liburua egitea proposatu zidaten.

Arrolari eginiko omenaldia da. Zergatik?

Bizkaian erreferentea izan da eta, gainera, eragin handia izan du nigan. Aitak bazeukan haren disko bat, eta trikitia jotzen ikasi nahi nuela esaten nuen nik txikit. Behin hura ezagutzera eraman ninduten, eta soinu zahar bat erosi genion. Mundu honetan sartzea berari zor diot.

Zein da lanaren helburua?

Euskal Herriko trikitia estandarizazio prozesu batean sartu da, eta Gipuzkoako jotzeko era nagusitu da. Bizkaiko trikitiaren nortasuna, berriz, galdu egin da eta hura berreskuratzea dut helburu liburu honekin. Dena dela, ez da trikitia ikasteko metodo bat, erakarpen txiki bat baino. Eta balio handia izango du soinularientzat, nire ustez.

Zein ezberdintasun dago Gipuzkoa eta Bizkaiko trikitien artean?

Gipuzkoako trikitia teknikoagoa da, eta bertokoa energetikoagoa. Horrezaz gainera, garai batean arin-

arin eta fandangoak baino ez ziren jotzen Gipuzkoan; Bizkaian jotak eta porrusaldak. Koplak eta musika tarte-katzen ziren hemen; Gipuzkoan pieza musikal hutsak ziren.

Zenbat kantu batu dituzu liburuan?

Rufino Arrolaren 16 pieza eta neuk berari egindako abesti bat. Azkeneko horren izena *Aupa Rufino* da, eta bertsoak Iñaki Aurrekoetxeak idatzi ditu. Lan handia eta zaila izan da, antzinako grabazioetatik abiatu naizelako eta hainbat moldaketa egin behar izan direlako. Rufinoren estiloa mantentzen saiatu naiz, eta behar horretan Imanol Arrolaren laguntza izan dut. Urte bi eman ditut lana burutzeko, baina ez nuen inoiz imajinatuko liburua argitaratuko nuela... Bizkaiko Trikitixa Elkartek proiektu-tzat hartu, eta babesa handia jaso dugu Euskal Herriko Trikitixa Elkartetik, Foru Aldunditik eta Lemoizko Udaletik.

Eta proiektu honek bigarren zatia ere izango du...

Bai, datorren urteko Durangoko Azokarako *Bizkaiko Trikitixa* diskoa kaleratzeko asmoa daukagu.



“Bizkaiko trikitiaren nortasuna berreskuratzea dut helburu liburu honekin”

Liburuan batutako kantuek osatuko dute disko hori.

Tradiziozko abesti eta koplak bildu dituzu lan horretan, hala ere, fusioa lantzen duzu...

Musika modernoa lantzen dugunok tradizioa ez dugula maite pentsatzen dute batzuek, eta ez da egia. Bateragarriak direla pentsatzen dut nik. Argi daukat zein bide jorratu nahi dudana; hala ere, ez dut ahaztu nondik natorren. Hau lan sentimentala da niretzat. Alde batetik, Rufino ezagutu nuelako, eta bestetik, trikitia jotzeko era honetan sinesten dudalako.

Sareak erakarrita



Interneteko erabilera %20koa da Europan, eta internautetatik %42 egunero konektatzen da sarera. Europako Publizitate Interaktibo Elkarteak (EIAA) egindako txosten batean jasotzen dira datu horiek. Ikerketa egiteko, 7.000 pertsona elkarriketatu dira telefonoz irailetik urrira bitartean.

Txostenaren arabera, aldizkariak (%8) eta egunkariak (%11) baino gehiago erabiltzen da Internet (%20) Europan, baina irratia (%30) eta telebista (%33) baino gutxiago. Internautetatik %42 sarera konektatzen da egunero, eta %10k 25 ordu baino gehiago ematen ditu astean Internetetik ibiltzen.

Elkarriketatuen erdiak sarera jotzen du informazioa eskuratzeko, eta %70k "nahi duzuna nahi duzunean" bilatzeko modurik onena dela pentsatzen du. Denbora ondo aprobetxatzeko hedabidetzat dute, eta ezin izango litza-tekeela Internet barik bizi esan zuen hiru kontsumitzailetatik batek. Horrezaz gainera, bertan agertzen diren markak abangoardistenak direla uste du %53k.

Gero eta jende gehiagok erabiltzen du Internet eguneroko gauzak egiteko: sarrerak erosi (%35), egunkariak irakurri (%37), erosketak egin (%31)... Eta lau europarretik batek musika entzuten du sarearen bidez. Gehien bisitatzen diren web-orrialdeak bidaia (%47) eta musikari buruzkoak (%39) dira.

Iradokizunak

www.zernola.net

Elhuyar elkarteak sortu du gazteei zuzendutako zientzia atari hau. Edozein gairi buruzko informazioa topatzeaz gainera, txataren bidez elkarri informazioa trukatzeko aukera dute gazteek bertan.

ZN Olinpiada atalean hainbat gai proposatzen zaie ikastetxean jorratzeko: nahi izanez gero, lehiaketarako izena eman eta lanak bidali dezakete bertara. Eta dena ikas-tea ez denez, joko pila bat ere topatuko dute webgune honetan. Hori bai, oroimena eta igarmena lantzeko jokoak dira horiek.

www.euskalmusika.com

Zein kontzertu egongo da asteburu honetan? Noiz aterako da Betagarriren hurrengo diskoa? Euskal musika talde eta bakarlarien gainean jakin nahi duzun guztia topatuko duzu webgune honetan: berriak, kontzertuak, azken diskoak... Horrezaz gainera, zure musikaririk kutunen web orrialdeetan sartzeko aukera duzu bertatik eta hainbat helbide interesgarri proposatzen zaizu. Musika MP3 formatuan jaitsi dezakezu eta, talde batean arituz gero, zure abestiak eskegitzeko lekua ere aurkituko duzu bertan. Eta edozein iradokizun, zalantza edota zeresan baduzu, foroan sartu baino ez duzu

egin behar. Musikaz blaitu zaitetz!

Office 2003 euskaraz

Duela gutxi Windows XPren euskarazko bertsioa egin zuten Elhuyar Fundazioak eta Uzeik, eta orain Office 2003 paketeko softwarea ere itzuli dute euskarara. Office 2003ren bertsio hau www.microsoft.com helbidean aurkituko duzu doan; eskuratzeko Language Interface Pack (LIP) Internetetik jaitsi eta gaztelaniazko bertsioaren gainean instalatu baino ez duzu egin behar. Eta softwareak euskaraz izateak arazorik ematen badizu sisteman, LIP hori desinstalatu egin dezakezu, Office 2003 ukitu barik.

Bengoetxe baserria

Loiuko Aspaldiko jatetxea dana gaur egun

Loiuko Zabaloetxe auzoan dago Bengoetxe baserria. Oinplano angeluzuzeneko etxea da, isurialde bitarako teilatuduna, eta fatxada perpendikularra dauka. Beheko eta goiko solairuak ditu eta ganbara txiki bat erdiko gorputzean.



Bengoetxe baserriari antxina ataratako argazkia

Bengoetxe baserria XVI. mendeko eraikina da. Era honetako oso adibide gitxi geratzen jakuz; hain ondo kontserbatuta eta jatorrizko hainbeste elementugaz, behintzat. Etxea 1525 eta 1550. urteen bitartean eraikin eben, eta baserri gotiko-errenazentistaren hiru mota oinarritzokoetarikoa da. Mota horrek simetrikoa izaten dau aurreko aldea, hiru gorputzetan eratuta. Fatxadearen beheko pisua harlanduz itxita egoten da eta goiko pisua zurezko bilbadura eta oholen bitartez.

XVI. mendeko baserrietan ohizkoa zan lez, Bengoetxe etxeak lurretik teilaturaino doazen zutoinez egindako zur-egitura ikaragarria dauka; egitura harlanduzko hor-

matik aparte dago ipinita. Eta arotz-lanari jagokonez, eraikuntzaren ezaugarri bikainak azpimarratzekoak dira, izan be garai bereko beste baserri batzuetakoak nahiko onak badira, askoz hobeak dira Bengoetxeakoak. Ezaugarri horreek fatxada nagusiko erdialdean azaltzen dira, batez be.

Antxinatasuna, tipologia aldetik dituan ezaugarriak eta kontserbazino-egoerea dirala-ta euskal herri-arkitekturaren aparteko adibide dogu Bengoetxe baserria. Historia eta etnografiari jagokonez, interes handikoa da eta sasoi horretan egozan eraikuntza eta arotz-tekniken benetako dokumentu materiala.

“XVI. mendeko egozan eraikuntza eta arotz-tekniken benetako dokumentu materiala da”

Txorierrin ez daukagu entzute handiko eraikuntza artistikorik, baina han-hor-hemen horrelako bitxi eder bat agertzen jaku, gure antzinako baserriak eta baserri-tarren bizimodua ezagutzeko lagungarria dana.

Eusko Jaurlaritzak monumentu izendatu eban 1999. urteko ekainean. Eta kontserbazinorako eta erabilerako babes-araubidea be onartu eban. Baserria aire-portutik hurbil egonda, lekuz aldatzeko bete beharko litzatekezan neurriak eta baldintzak be argi ezarri ebazan.

Erabilereari buruz hurrengo dino: baserriaren ezaugarriei egokitzen jakezan erabilerak baimendu ahal izango dira, eta horreen artean turismo edo ostalaritza sailari jagokona, orain daukan jatetxe-izaerari lotutako erabilerean arreta berezia jarritz.

Loiuko baserri zahar eta interesgarri hau ikusi gura dozuena egin biratxo batetik. Eta patrikera bero badozue, Aspaldiko jatetxearen janariagaz gozatu, bide batez.

Testua: Juanxu Bilbao



Txapela buruan...

Aikor! aldizkariak geure irtenalditxoetan pasetan jakuzan bitxikeriak kontatzeko itxiten deuskun txoko honetan euskeragaz eta Euskal Herriaren ezagueragaz lotuta gertatu jatazan batzuk kontauko deusuedaz.

Behin, Kairoko zokoan, Al Jalilin hain zuzen be, salmenta postu batera joan ginan eta bertako morroiak nongoak ginan itaundu euskunean, guk euskaldunak ginala esan, eta deiadarka hasi zan ekizan lauzpabost berbak oihukatuz, kaleko beste saltzaileen deskojonorako.

Euskeraren beste amante bat Kubako uharte txiki batean (Cay Levissan) aurkitu genduan. Bertoko langilea zan, hondartza garbitzen edo lan egiten ebana. Handik pasatutako baten batek emondako agenda bat eukan, eta bertan 50 berba baino gehiago eukazan apuntatuta eta ondo ikasita. Guk be, beste barri batzuk esan geuntsazan eta pozarren geratu jakun mutikoa.

Beste aspektu bat gure herriaren eza-guera da. Oso gatz egiten jaku euskaldun, eta bakarrik euskaldunak garala azaltzea.

Bretainiako kanpin batean gengozala dantza tradizionalen ikastaro bat antolatu eben kanpineko arduradunek, eta ekintza interesgarria iruditu jakunez, ikastarora apuntatu ginan. Eta dantzen tarteko atsedendalditxoan gure ikaskideek nongoak ginan itaunka hasi jakuzan, eta guk gure frantses traketsean Pays Basquekoak ginea azaldu geuntsen. Baina eurek ezin eben ulertu zelan izan ginatkeen Pays Basquekoak eta frantsesez hain txarto



Hainbat bitxikeria gertatzen jakuz euskaldunoi herritik kanpo

berba egin, Pays Basque betidanik Frantziakoa izanik. Azkenik ikastaroa irakasten ari zan soinularia kotxera joan eta ikurrina bat atara eban arte.

Bretainiako beste herri batean, Caraixen, kanpina ikurrinaz beteta dago eta, gu joan ginanean behintzat, euskaldunei ez eutsien sosik kobratzen. Herri hori Oiartzungo herriagaz adiskidetuta dago.

Eta amaitzeko, orain dala bi urte Costa Rican pasau jatan pasadizo bat kontatuko deusuet. Queposeko hondartzan nengoa-

la txiringito batera joan nintzan ur botila bat erostera, eta nire gazteleragaitik edo, saltzaileak betiko galdera egin eustan:

-¿Es usted español?

-No, vasco.

-Ah, bueno ¿Consiguieron ustedes ya la independencia?

-No, todavía no, pero la conseguiremos.

Ba horixe, lortu arte.

Testu eta argazkia: Jon Ander Rola

Sukaldaritza

Kanape tropikala

Osagaiak

- Lau koilarakada igurtzeko gazta natural
- Sagar bat
- Koilarakada bi maionesa
- Limoi
- Anana-xerra bi
- Moldeko ogia (azalik gabe)

Prestatzeko era

Sagarra zuritu, limoiarekin igurtzi eta birrindu. Nahastu gazta eta maionesarekin, eta utzi hozkailuan ordu bete-an. Moldeko ogian zabaldu, lau zatitan moztu, eta apaindu anana zati batekin.




Gabonetako ahatea

Osagaiak

- Kilo biko ahatea
- 50g. gurina
- 6 sagar
- Piperbeltza
- Gatza
- Adoboa egiteko: litro bat ardo gorri, koilarakada bat ozpin, koilarakada bat azukre, azenario bat xerratan, baratzuri atal bi, erromeroa, piperbeltza, gatza

Prestatzeko era

Ahatea garbitu, eta jarri adoboan 48 orduan (adoboa egiteko osagaiekin). Sikatu, gatza eta piperbeltza bota, eta igurtzi gurinarekin. Sartu labera eta erre ordu bete eta erdian. Noizean behin ihinzatu adobo-zukua-rekin. Labetik atera baino 20 minutu lehenago, sartu sagarrak. Jarri ahatea ontzi batean, bota zukua eta apaindu sagarrekin.



Bisigua limoi-saltsan

Osagaiak

- Kilo bat eta erdiko bisigua bat. Garbi eta hezurrik gabe
- Limoi bi
- 100 g gurina
- Piperbeltz zuri
- Gatza

Prestatzeko era

Gurina, gatza apur bat eta piperbeltz zuria nahastu krema-itxura lortu arte. Arrainaren barruko aldea nahasketarekin igurtzi eta limoi-xerrak ere ipini. Limoi-xerra gehiagorik estali, bota gatza eta aluminio-paperaz bildu. Sartu labera eta erre 20 minutuan alde bakoitzetik. Gaminiz–Errieta jatetxea Zamudion Zerbitzatu aurretik utzi 5 minutuan jalki-



tzen.
Ontzi batean ipini eta apaindu limoi-xerrekin.

Gabonetako postrea

Osagaiak:

- Bizkotxo bat
- Esne kondentsatu-pote bat
- Litro bat ardo gorri
- Bost koilarakada azukre
- Kanela adar bat

Prestatzeko era:

Eltze laster batera ur apur bat bota, esne kondentsatu-potea zapiz bildu eta jarri eltze barruan. Estali eta utzi egosten 45 minutuan su ertainetan.

Konpota egiteko: Bota ardoa kazola

batera, gehitu kanela adarra, pikuak eta mertxika sikatuak (aldeztatik 24 orduan eduki behar dira uretan), eta utzi irakiten 30 minutuan su epeletan. Mahaspasak eta sagarrak (lau zatitan moztuta) gehitu, eta 15 minutuan dena egosi oso su apaletan.

Bizkotxoa xerratan moztu, eta jarri bi plater bakoitzean. Esnezko gozokiarekin hariak marraztu eta konpota apur batekin lagundu. Mendaren hosto batzuk erabili apaintzeko.

GOMENDIOAK

Amagoia Gezuraga

LIBURUAK

Gauza txikien liburua

Pako Aristi

Akordatzen

Joseba Sarrionaindia

Ipuin izugarria

Askoren artean

Sumar ustelaren urtea

Edorta Jiménez

Griot

Jon Arretxe

Birika zatiak

Sabih Borda

DISKOAK

Forget the music. Urnietako

Materia taldea

Toulouse. Sagarroi

Izan zaitez zu. Kauta

Game over. Pilt

Lotuta egon arren. Kokein eibartar

boskotearen bigarren diskoa

Photograma. Zein? bilbotar taldea-

ren bigarren diskoa

A-Ha shake heartbreak. King of

Leon estatubatuarrak

Con todo respeto. Molotov

DENBORA PASA

Benetan ezagutzen duzu Txorierri?

Beheko argazkietan herri bakoitzeko "zeozer" agertzen da. Lotu argazkia dagokion herriarekin.



A



B



C



E



D



F



G

LARRABETZU 1

ZAMUDIO 2

ERANDIO GOIKOA 3

SONDIKA 4

LEZAMA 5

LOIU 6

DERIO 7

Benetan ezagutzen duzu Txorierri? Emaizak: A2, B6, C3, D7, E5, F4, G1

Eusko Herriko

ORAIN, GABONAK PASA OSTEAN, URTEROLEZ... BEHERAPENAK DATOZ, AURTEN, ETA AURREKO URTEEN BIDEA JARRAITUZ, MERKEAGOAK!

LURRAK MERKE

15% 60% 30% 50%

TXORIERRI

BEHERAPENAK

ZEIN DA, AURTEN, 12. DEKUBARRA, AURREKOENAKO